

## **FUNTSEZKO ELKARTEA**

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat elkartekin jarri behar gara harremanetan eta aliantzak egin behar ditugu: alde batetik gure produktua bezeroei etxera eramateko; eta bestetik, guk sortutako diseinuak egiteko.

Gure produktua alde batetik bestera garraiatzeko Platanomelónekin kontaktatuko dugu. Platanomelón artikuloak garraiatzen dituen enpresa bat da eta horregatik aliatuko gara berarekin, gure produktua leku guztitara bidali ahal izateko. Prozesu hau martxan jartzeko, beste enpresa baten laguntzarekin sortutako produktuak Platanomelóni emango dizkiogu eta guk lortzen dugun etekinaren zati bat emango diegu. Horrela, "Platanomelón" gure hornitzailea izango da eta gure materialen eskuragarritasuna bermatzea izango da helburua. Platanomelón kontaktuan jarri gara eta negoziatzen egon ondoren, horaindik ez dugu adostu zenbat irabaziko duten beraiek baina, gure produktarekin lortzen dugun etekinaren %15 emango diegu gutxi gorabehera.

Garraioaz gain, gure produktua sortzeko enpresa batekin jarri behar gara kontaktuan. Aukeratu dugun enpresa BS Atelier da eta horrela harituko gara lanean: guk gure produktuen diseinuen plano eta ideiak emango dizkiegu eta beraiek gure produktuak sortuko dituzte. Enpresa honek produktuak artesanalki sortzen ditu eta hori izan da bereiekin kontaktuan jartzea eragin digun arrazoietakoa bat, izan ere, herrialde ez garatuetan gertatzen den gehiagizko esplotazioaren kontra daude eta guk ideia horrekin bat egiten dugu.

Hori kontuan hartuta, merkatu batean sartzeko asko laguntzen du merkatu hori menperatzen duen enpresa batekin aliantza egitea eta horregatik aukeratu ditugu bi enpresa garrantzitsu hauek. Batak, gure produktua ondo eta egoki sustatuko dela kontuan hartuko dutelako eta besteak, horrelako produktuetan interesa duten pertsonetara iritsiko dela zihurtatuko duelako.

